

Txama Integrazio Topagunea

TXAMA
Integrazio topagunea



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure topagunean jorratuko diren jarduerak herriko pertsonen integrazioan oinarrituko dira, gizarteko arazoetako bat integrazio falta baita. Kasu honetan, arazoa, integratu gabe dauden herriko pertsonak integratzea da, betiere, herriko jendearekin zuzenean harremantzen. Hau aurrera eramateko, hurrengo ekintzak egingo genituzke:

Ekintza kulturalak: Solasaldiak, film eta nobela desberdinei buruzko debateak, hitzaldiak (historia eta ohitura desberdinei buruzkoak), herrialde desberdinetako musika kontzertuak...

Ekintza sozialak: Topagunera iritsiko diren pertsonen arteko harremana sustatzea, azoka solidarioak, elikagai bankuak, arropa bankuak, eskubide desberdinak aldarrikatzeko manifestaldiak, boluntariotzak, aldarrikapenak egitea era artistikoan (esaterako, musikarekin edo muralekin)...

Kirolak: Herri kirolak, herrialde desberdinetako kirolak eta jokoak, mendi buelta, kirol lehiaketak (adibidez, olinpiadak), ginkana herrian zehar, inguruko herri edo zonalde desberdinetara irteerak...

Arazoak konpontzeaz gain, sareko jarduerak ezinbestekoak izango dira, zeren bezeroak zein boluntarioak bilatzea ahalbidetzen digute eta egitasmoari buruzko informazioa hedatzen laguntza eman dezakete.